



ESKALADA tailerra (2022-02)

LH 3 - 6 bitarteko haurrentzat antolatutako tailerrak dira. Tailerrak igandetan izango dira, martxoan. Txanda ezberdinak antolatu dira.

Tramitatzailerak: Eibarko Udaleko Kultura saila, Haurreria eta Gazteria.

Hartzaileak: LH 3etik 6ra bitarteko mailako ikasleak.

Taldeak, datak, ordutegiak, tokia, formatzaileak:

LH 3tik 6ra. "ESKALADA" Martxoak 6, 13, 20 eta 27. IPURUA Kiroldegian. Gutxienez 4 haur, gehienez 8. Enpresa: INGURU ABENTURA

- 1 txanda: 16:45-18:15.
- 2 txanda: 18:15-19:45.

Egun eta txanda **BAKARRA** aukeratu ahalko da.

Txandan ezarritako ikasle kopurua gainditzen bada, otsaileko eskalada tailerrean onartuak izan diren ikasleak automatikoki txandaren zerrendatik kanpo geldituko dira, zozketan parte hartzeko aukerarik izan gabe.

Ikastaroaren prezioa:

- Eibarren erroldatutakoak **5 €**.
- Eibarren erroldatuta ez daudenak **10€**.

Ikastaroaren ordainketa:

Matrikularen zenbatekoa ordainketa bakar batean kobratuko da, erreziboa helbideratuta.

Tailerren hizkuntza: euskaraz.

Aurrematrikula: ikastaroan izena emateko aurrematrikula egin beharko da **otsailaren 18tik 28ra (biak barne)**. Aurrematrikula egiteko **formulario bat bete beharko da elektronikoki ondorengo estekan:**

<https://formularioak.eibar.eus/eu/eskalada2022-02>

Kudeaketa arauak:

Aurrematrikula egiteko epea amaitzerakoan behin-behineko zerrendak lortuko dira eta taldeen kudeaketa burutuko da.

Izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxieneko ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da (www.eibar.eus), **2022ko martxoaren 2an**.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxieneko ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira.



Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. **Zozketa Portalean egingo da.** Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: **martxoaren 2an 10:00etan**. Zozketa era honetan egingo da:

- Zozketa egin aurretik izena eman duten pertsona guztiekin zerrendak egiten dira alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat emango zaio.
- Zaku baten sartuko dira zenbaki guztiak eta zenbaki bakar bat ateratzen da.
- Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horretatik hasita elkarren hurreneko ondoren datozenak izango dira, plaza guztiak bete arte.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren webgunean (www.eibar.eus), egongo da **martxoaren 2an, 12:00etatik** aurrera. Zerrenda hori argitara ematen den unean sortzen da matrikularen zenbatekoa ordaintzeko obligazioa. Ikastaroa utzi edo ikastaroan baja ematen duen pertsonak ez du izango matrikularen zati proportzionala jasotzeko eskubiderik.

Aurre-inskripzioen onarpenaren ondoren, behin betiko inskripzioa egin behar da, ondoren adierazten den dokumentazioa tailerra burutuko den lehen egunean aurkeztuz:

- **“Eskalada”** izeneko inprimakia behar bezala beteta eta tailerrera joango den adingabearen aita, amak edo tutoreak sinatuta.
- Tutoreen kasuan, tutoretza egiaztatzen duen dokumentazioa.

Informazio gehiago: 943 708 435 telefonoan.